# Landeia

Aldizkari Sindikala - Revista Sindical
Urtarrila · Otsaila 2023 Enero · Febrero | Nº 248. Zenb.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



# SOLDATAK, PENTSIOAK **DEFENDATU!**

# EMPOBRECIMIENTO **¡STOP!**

# Presupuestos de 2023
# Raciones Má

> **Ander Egiluz Beramendi**

En medio de una inflación que continúa mermando el poder adquisitivo de la ciudadanía, los parlamentos vasco y navarro se han negado a aprobar unos presupuestos que respondan a las necesidades de la gente. Ni los prepuestos supuestamente expansivos de Urkullu, ni el acuerdo conseguido entre Chivite y EH Bildu en Nafarroa (tras años de incumplimiento de pactos por parte de los socialistas navarros), servirán a las clases trabajadoras para capear el temporal.



## Salud

Los sistemas públicos de salud de la Unión Europea están en decadencia desde hace ya unos años, y en la CAPV y Navarra, desgraciadamente, no se da la excepción. A pesar de que la pandemia dejó a la vista las carencias de Osakidetza y Osasunbidea, ahora que estamos intentando realzar el vuelo, ni el Gobierno vasco ni el navarro están dando los pasos necesarios para revertir esa tendencia.

Osakidetza vive uno de sus peores momentos con las crisis del Hospital Donostia y sigue siendo considerado el segundo problema más importante para la ciudadanía vasca, según el DeustoBarómetro de diciembre de 2022. Aun así, en comparación con la previsión de cierre de 2022, el presupuesto de Osakidetza para 2023 ha descendido un 4,80%.

La situación en Osasunbidea no es mucho mejor. La falta de profesionales y la alta temporalidad continúan minando la calidad de la asistencia. A pesar de ello, el Servicio Navarro de Salud no ha crecido más de un 3% en el presupuesto, en contraste con la previsión de cierre de 2022. No representa ni el 6% del PIB del territorio, mientras la media europea se fija alrededor del 8%.

## Educación

Educación y Salud han sido, históricamente y por razones obvias, los departamentos que más inversión pública han recibido en los países de la UE. Así es, también, en Navarra y la CAPV. No obstante, ambos herrialdes quedan muy a la cola en la lista europea. El porcentaje invertido en Educación sobre el PIB en Euskadi es del 3,50 y, en Navarra, cerca del 4. La lista europea la encabezan Islandia, Suecia y Bélgica, con el 7,7%, 7% y 6,6% respectivamente. En el polo opuesto, cierran la nómina Bulgaria, Rumanía e Irlanda, con el 4%, 3.7% y 3.1%. La media está justo en el 5%.

## Prestaciones sociales

En abril de 2022, ELA publicó un informe sobre la vivienda en Hego Euskal Herria donde se recogía que en el territorio había más de 80.000 viviendas vacías. El porcentaje del PIB que se destinó a políticas públicas de vivienda en la CAPV y Navarra el año pasado fue de alrededor del 0,20 y el 0,29, respectivamente. El presupuesto del presente año en Euskadi ha incrementado en un 0,11%, pero en Nafarroa ha caído un 4,20%. La práctica ausencia de vivienda pública hace que alrededor de 1.500

# 3 en la CAPV y Nafarroa
# ás Pequeñas



personas se vean obligadas a vivir en la calle en Hego Euskal Herria y la apuesta de los gobiernos de Euskal Herria no hará más que aumentar esa cifra.

Creadas para atender las necesidades básicas de quienes no disponen de recursos suficientes, la Renta de Garantía de Ingresos y la Renta Garantizada continúan estando muy por debajo de las exigencias económicas actuales. Según la ley aprobada en 2008, en Euskadi, la RGI general debería constar de 1.026,7€ al mes y la RGI de pensionistas de 1.166,7€ al mes, pero los presupuestos de 2023 han fijado esas cuantías en 799€ y 905,4€, respectivamente.

La situación de las prestaciones sociales en Nafarroa es igual de precaria. La inversión en Renta Garantizada prevé gastar 88,4 millones de euros en 2023, 8,5 millones menos que el presupuesto consolidado de 2022.

Los datos son aún más desoladores si se repara a la tasa de variación anual del IPC, que en diciembre de 2022 en Navarra fue del 6,4% y en Euskadi del 5,4%.

## Plan de empleo y diálogo social

Esta partida que solo afecta a la Comunidad Autónoma de Navarra incluye la financiación, vía presupuestos, de UGT, CCOO y CEN. Esta situación no se daba desde la salida de UPN del gobierno, pero los presupuestos de 2022 recuperaron esa forma para sufragar el diálogo social, y para 2023 han vuelto a hacerlo. La mayor parte de las partidas encuadradas en este plan corresponden a la gestión de políticas que ya hacía la administración pública, lo que ha significado privatizar políticas que hasta hace dos años han sido públicas, como la equidad de género, la siniestralidad laboral o las políticas activas de empleo.

## Deuda pública y peaje en la sombra

Los presupuestos para 2023 quedarán mermados por los pagos a los que ambos gobiernos se han comprometido. Una de esas deudas es el peaje en la sombra, un mecanismo utilizado para pagar grandes proyectos, como el Canal de Navarra, y que consiste en que la obra la construya y financie la empresa privada y el Gobierno pague por su utilización. Así, la administración evita el endeudamiento a corto plazo, aunque a largo plazo el gasto es mucho mayor.

La deuda sigue aumentando en los gobiernos de Hego Euskal Herria. En Nafarroa, uno de cada diez euros del presupuesto irá destinado al pago de una deuda que se ha disparando sin control. Este año, las y los navarros pagarán 628,3 millones de euros en deuda, un 801,4% más que en 2008, año en que se empezó a medir el peaje en la sombra. Y en Euskadi, a pesar de contar con un superávit cercano a los 1.500 millones de euros, los presupuestos prevén que la deuda crezca un 141,10% respecto del año pasado. ■

# Ez dira inoizko aurrekonturik hedakorrenak

> **Azterketa Bulegoa eta Landeia**

Euskal langileria pobretze prozesu orokorra pairatzen ari da, prezio altuak eta soldaten ez eguneratzea direla eta. Horregatik, 2023rako aurrekontuek garrantzi handia hartzen dute, ahulenentzat babesa izan behar luketelako, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatu behar lituzketelako eta ongizatean, trantsizio ekosozialean eta kalitatezko enpleguan lagundu behar luketelako.



Ikusi ahal izan dugunez, 2023rako aurrekontu proiektuek aurreko urteetako proiektuen ildoari jarraitzen diote; propaganda handiarekin baina, errealitatean, kontuek aldaketa gutxi erakusten dituzte. Ez pandemia, ez eta inflazio krisia, ez dirudi nahikoa direnik benetako gastu publiko hedakorra garatu nahi izateko.

## Con una reforma fiscal, no estaríamos hablando de situaciones de déficit

EAE eta NFEko aurrekontuen abiapuntuek, gainera, akats larri bat dute: ez da zalantzan jartzen haiek finantziatzeko behar den dirua biltzeko modua. Enpresa gehienak azken hileotan inoiz baino etekin handiagoak poltsikoratu badituzte ere, klase herrikoiak dira aurrekontuen zati gero eta handiagoa jartzen dutenak. Aldiz, etekinak dituzten enpresek, soldata altuenek eta kapital errentek gero eta ekarpen urriagoa egiten dute.

**Euskal Autonomia Erkidegoa**

EAEko aurrekontuei dagokionez,




2021ean izandako diru sarrera publikoak espero zirenak baino askoz handiagoak izan ziren. Foru Aldundien ekarpenak eta Espainiako eta Europako transferentziak kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzak 2.200 milioi euro baino gehiagoko diru sarrerak izan zituen. Hala ere, diru sarrera horiek ez ziren aprobetxatu gastu publikoa handitzeko; aurreikusita zegoen zorraren erdia jaulkitzeko erabili ziren, eta 1.000 milioi baino gehiago erabili gabe geratu ziren.

2022. urtean, Foru Aldundien ekarpenak aurrekontuan jasotakoa baino altuagoak izan arren,%10eko defizita izatea aurreikusten da. Zerga erreforma bati helduz gero, ez ginateke defizit egoerez ariko. 2023rako aurrekontu proiektuak aurreko urteetako ildotik jarraitzen du, eta gastu soziala gutxi handituko da 2022ko itxierarekin alderatuta.

## Volvemos a las políticas de austeridad sin haber aprendido ninguna lección de la pandemia

Osasunean egindako gastua jaitsi egin da, eta Hezkuntzan maila berberetan mantendu da. Aurrekontu proiektuak HSBEaren zenbatekoan murrizketak aplikatzea jasotzen jarraitzen du, baita etxebizitza politiken zuzkidura oso txikia ere.

2023rako lehen aldiz sartu dira MRR funts europarrak diru sarreren aurrekontuan, nahiz eta azken urteak xedapen gehigarri gisa sartu diren. Hala eta guztiz ere, funts



**Aitor Murgia**
ELAko Azterketa Bulegoko kidea

# Caen las primeras gotas de los fondos Next Generation

Por primera vez se incorporan en los presupuestos de la CAPV los fondos europeos Next Generation. Hasta ahora, como no se sabía cuanto dinero se iba a recibir, el Gobierno Vasco prefería no incluirlos en el proyecto y los incorporaba según iban viniendo. Recordemos que los fondos europeos iban a suponer un chaparrón de millones que traerían consigo la recuperación pospandémica y una economía más resiliente, verde y digital. Este año veremos caer las primeras gotas. Sin embargo, mirando al cielo, no parezca que después vaya a venir un chaparrón.

Antes que los millones, han venido las condiciones. Recordemos que estos fondos estaban condicionados a ciertas reformas que el Estado español debía llevar a cabo. Hace un año se incumplieron las promesas del Gobierno del PSOE y Unidas Podemos de derogar las reformas

laborales de 2010 y 2012, y se consolidaron numerosos recortes de derechos laborales que estas reformas establecieron. En estos momentos, se está a punto de reformar el sistema de pensiones que provocará un recorte de la cuantía de pensiones futuras.

Una vez pasados los peajes, conviene analizar qué suponen estos fondos en la CAPV. En total son 260 millones de euros de los fondos NGEU en el presupuesto de 2023: en términos relativos, un 1,8% del presupuesto total. Es evidente que una partida tan pequeña no va a suponer ningún cambio estructural, tal y como se vendía.

De esos 260 millones, la mitad (132 millones) se pretenden destinar al Departamento de Educación y al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transporte. Principalmente, al Plan Nacional de Capacidades Digitales (del Estado español) y a la rehabilitación de edificios residenciales y viviendas para fomentar la eficiencia energética.

Otra partida importante es la de Transformación digital y modernización de las Comunidades Autónomas, que involucra a diferentes departamentos y que también es una partida planteada por el Estado español.

Según el Gobierno Vasco, en su plan Euskadi Next estos fondos van a "reunir un conjunto coherente y consistente de iniciativas públicas y público-privadas diseñadas para afrontar los retos de la transición energético-ecológica, la transición digital y la cohesión social".

Nada más lejos de la realidad. Por el momento, estamos a años luz de cumplir con las expectativas que se marcaron, tanto en cantidad de dinero, como en inversiones que se pretenden desarrollar.

Ya puede llover en los próximos tres años... ■

El papel de la izquierda no puede limitarse a maquillar los presupuestos antisociales

El gasto público es el motor de la economía y, en este sentido, los gobiernos vasco y navarro deberían tener más peso a través de la inversión pública

horien gastua aztertuta, ez dute inolako egitura aldaketarik eragiten aurrekontuan.

### Nafarroako Foru Erkidegoa

Nafarroaren kasuan, legealdi osoko aurrekonturik txarrena da aurtengoa, gizartearen eta sindikatuen parte hartzerik gabe egindako hau. Aurrekontuaren hazkundea oso txikia da, eta KPIaren eta BPGaren hazkunde aurreikuspenen oso azpitik dago. Horrek esan nahi du Administrazio Publikoak pisua galduko duela ekonomiarekiko. Beraz, austeritate politiketara itzuli gara pandemia garaitik inolako irakaspenik atera gabe, eta etorkizuneko murrizketetarako bidea prestatzen hasi dira.

EH Bildurekin lortutako akordioak ez du edukirik: aurrekontu osoa onartu dute eta aurrekontuaren %0,26ren truke erreforma fiskalari uko egin diote. Legebiltzarreko ezkerraren estrategia politikoa aurrekontu eta zerga politika antisoziala baliozkotzea da.

ELAk oposizio gisa jardungo duen ezker instituzionala nahi du, aurrekontu eta zerga politiken erabateko eraldaketa defendatzen dugun indar sindikal eta sozialekin aliatua izango dena. Ezkerraren zeregina ezin da aurrekontu antisozialak makillatzera mugatu, aurrekontuak ez baitira onak sinatzen dituenaren arabera, edukiaren arabera baizik.

Beraz, ondoriozta daiteke aurrekontu horiek kontinuistak direla eta, gainera, aukera handia galtzen dela urte askotan murriztu diren partidetan inbertsio handiagoa egiteko.

Gastu publikoa ekonomiaren motorra da eta, alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak pisu handiagoa izan beharko lukete inbertsio publikoaren bidez. Baina ez herritarrei zerbitzua ematen dieten gaietan baino ez, enpresa estrategikoetan eta balio erantsi handiagoa sortzen duten enpresetan ere. ■



JUBILACIÓN
WELCOME
Next Gen EU
PENSIÓN MÁXIMA
25 ÚLTIMOS AÑOS PARA EL CÁLCULO
Min. A COTIZADOS 30
2027 → 67 AÑOS
2011 65 ÑOS




# Pentsioen erreforma eta diru laguntzen prezioa

Europar Batasunak xantaia egin dio Madrili: pentsio publikoak moztu ezean ez ditu Next Generation funtsak jasoko. Pertsona ahulenek ordainduko dituzte laguntzok. Neurritik gora pagatu ere.

**> Ander Egiluz Beramendi**

Pentsioen kalkulua egiteko urte kopurua 25etik 30era luzatzeko asmoa du Espainiako gobernuak eta, horrekin batera, beste erreforma batzuk helduko direla esan du Pedro Sanchezen kabineteak.

Espainiako Bankuak berak adierazi duen bezala, urte kopurua 15etik 25era aldatu izanak batezbesteko pentsioa % 5 murriztea ekarri du, eta 25etik 35era pasatuz gero, murrizketa beste % 8,2 areagotuko litzateke.

ELA ha organizado actos y movilizaciones en Iruñea y Bilbo para el 23 y el 24 de febrero, respectivamente

Aldaketa horrek eragin negatibo bikoitza izango du pentsio berrien zenbatekoan. Alde batetik, kotizazio oinarri baxuenak dituzten urteak sartu ohi direlako kalkulua egiteko eta, bestetik, kotizatu gabeko aldiak sar daitezkeelako ere. Horrela, denbora gutxien kotizatuta duten pertsonak bi aldiz izango dira zigortuak, bereziki emakumeak eta pertsona prekarizatuak.

## Hego Euskal Herriko egoera

Hego Euskal Herriko populazioaren % 22,6 da pentsioduna (% 19,7 Nafarroan eta % 23,5 Euskal Autonomia Erkidegoan), baina lurraldeko aberastasunaren % 12,6 bideratzen da horiek ordaintzera. 2021ean 10.279 milioi euro bideratu zituen Eusko Jaurlaritzak pentsioak ordaintzera, eta 2.345 milioi Nafarroako Gobernuak. 12.624 milioi guztira, BPGaren % 12,6. Eurogunean, batezbeste, BPGaren % 14,1 bideratu zen pentsioak ordaintzera 2020an.

Europara begiratu gabe, pentsioak txikiegiak dira geurean. 2022ko azaroko datuen arabera, EAEn 1.356 eurokoa zen batezbesteko pentsioa eta, Nafarroan, 1.256koa. Pentsioen zati handi bat, gainera, pobrezia mailaren azpitik dago eta, beste behin, emakumezkoak kaltetzen ditu egoera honek gehien, lan munduan pairatzen dituzten diskriminazioen ondorioz. Gizonek baino 600 euro gutxiago jasotzen dituzte emakumeek.

## Elkarrizketa soziala eta mobilizazioak

Mitxel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak kritikatu du elkarrizketa soziala sindikatuek Gobernuaren aurrean makurtzeko baino ez izatea. Horregatik, mobilizazioen beharra azpimarratu du.

Otsailaren 23an eta 24an izango dira mobilizazioak, Iruñean eta Bilbon, hurrenez hurren. Lehena, Nafarroako Antzerki Eskolan hasiko da, goizeko 10:00etan, ekitaldi batekin. Eta gero, kontzentrazioa egongo da Udal Plazan, eguerdian hasita. Eta Bilbon, ekitaldia Campos Antzokian izango da, goizeko 10:00etan. Eta horren ostean, manifestazioa egingo da Camposetik Moyua Plazaraino. ■

> Una parte importante de las pensiones está por debajo del nivel de pobreza, y las mujeres son las más afectadas, perciben 600 euros menos que los hombres

### REIVINDICACIONES DE ELA EN MATERIA DE PENSIONES

- Pensión mínima de 1.260 euros e incremento de los fondos.
- Edad de jubilación a los 65 años.
- Tener en cuenta 15 años para calcular la pensión y revertir los recortes en las jubilaciones anticipadas.
- Generalizar el contrato de relevo.
- Crear empleo de calidad y subir los salarios por encima del IPC.
- Potenciar el sistema público de pensiones.
- Decidir las pensiones en Hego Euskal Herria.
- Volver a situar la cuantía de la RGI y la RG en el 100% del SMI para las personas pensionistas.
- No limitar las pensiones a las cotizaciones sociales.
- Anular el Pacto de Toledo y todas sus reformas y recortes, los recortes de 2011 y 2013 y cualquier otro pasado y futuro.
- Al igual que con las reformas anteriores, en ELA entendemos que para hacer frente a estas medidas hay que movilizarse.

**BATEZBESTEKO PENTSIOEN ZENBATEKOA – EAE ETA NAFARROA**
**GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK**
**2022KO AZAROA**

| | EAE | NAFARROA |
|---|---|---|
| **BATEZBESTEKO PENTSIOA** | **1356** | **1256** |
| GIZONEZKOAK | 1682 | 1545 |
| EMAKUMEZKOAK | 1056 | 977 |
| **BATEZBESTEKO ERRETIRO PENTSIOA** | **1542** | **1417** |
| GIZONEZKOAK | 1803 | 1653 |
| EMAKUMEZKOAK | 1147 | 1064 |
| **BATEZBESTEKO ALARGUN PENTSIOA** | **950** | **863** |
| GIZONEZKOAK | 669 | 617 |
| EMAKUMEZKOAK | 973 | 886 |

**Iturria: Gizarte Segurantza**

# La cara de ELA en las elecciones

A pocas semanas del ecuador del periodo concentrado, seis delegadas y delegados del sindicato hablan de sus experiencias, procesos y visiones.

> **Ander Egiluz Beramendi**

Detrás de cada conquista laboral hay una lucha, porque desgraciadamente los derechos aún hay que exigirlos. Y en ese espacio entre la empresa y la plantilla se encuentra la representación sindical.

Conocen bien sus profesiones y las necesidades de las plantillas, y tienen experiencia a la hora de tratar con la Dirección de las empresas, tan inalcanzables para gran parte de las y los empleados. Las victorias las celebran como un gran trabajo en equipo, pero los varapalos, muchas veces, los sufren en solitario.

Si bien es cierto que en época de elecciones deben pisar más el acelerador, el resultado es consecuencia de su trabajo diario. Problemas con las nóminas, los horarios, enfermedades, permisos, poder adquisitivo... Los contratiempos a los que se enfrentan los empleados son infinitos y su mejor opción es, casi siempre, acudir a los sindicatos. La organización, la cercanía y la sinceridad son sus armas clave.



## "Antolatu gabe ezin zara langile denengana heldu"

**Iberdrola**ko delegatua da **Gorka López del Corral** eta argi dauka azken hauteskundeetan lortutako emaitza onen atzean antolakuntza eta sinesgarritasuna daudela. "2000 langile inguru daude lantoki desberdinetan. Antolatu gabe ezin zara denengana heldu", esan du.

Horretarako, langile eta lantokien errolda bat daukate, beharrezko informazioarekin. Plantillarentzat garrantzitsuak diren gaiak modu ulergarrian aurkezten saiatzen dira eta, ahal dutenean, aurrez aurre; hurbiltasunak asko laguntzen baitu.

| Enpresa | Herria | Lehen | Orain |
|---|---|---|---|
| **Industria eta Eraikuntza** | | | |
| Iberdrola | Bilbo | **ELA 35 / 98 (% 35,71)**<br>UGT 34<br>ATYPE 12<br>CCOO 6<br>BESTEAK 11 | **ELA 45 / 87 (% 51,72)**<br>UGT 28<br>ATYPE 3<br>CCOO 6<br>BESTEAK 5 |
| Mercedes | Gasteiz | **ELA 7 / 31 (% 22,58)**<br>UGT 7<br>LAB 4<br>CCOO 4<br>BESTEAK 9 | **ELA 9 / 29 (% 31,03)**<br>UGT 6<br>LAB 5<br>CCOO 4<br>BESTEAK 5 |
| Bellota Agrisolutions | Legazpi | **ELA 6 / 9 (% 66,67)**<br>LAB 1<br>CCOO 1<br>ESK 1 | **ELA 9 / 13 (% 69,23)**<br>LAB 1<br>CCOO 2<br>ESK 1 |
| Icer Rail | Iruñea | **ELA 3 / 9 (% 33,34)**<br>UGT 6 | **ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>UGT 4 |
| AAF | Gasteiz | **ELA 8 / 9 (% 88,89)**<br>LAB 1 | **ELA 8 / 9 (% 88,89)**<br>LAB 1 |
| Ingeteam Indar | Beasain | **ELA 8 / 17 (% 47,05)**<br>LAB 8<br>CCOO 1 | **ELA 10 / 17 (% 58,82)**<br>LAB 7<br>--- --- --- |
| Lacteos de Navarra | Iruñea | **ELA 3 / 9 (% 33,34)**<br>LAB 6 | **ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>LAB 4 |
| Sidenor Azkoitia | Azkoitia | **ELA 4 / 13 (% 30,76)**<br>LAB 3<br>CCOO 3<br>USO 2<br>UGT 1 | **ELA 5 / 13 (% 38,46)**<br>LAB 3<br>CCOO 2<br>USO 2<br>UGT 1 |
| Atusa | Agurain | **ELA 4 / 9 (% 44,45)**<br>UGT 3<br>LAB 1<br>INDEPEN. 1 | **ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>UGT 2<br>LAB 1<br>INDEPEN. 1 |
| Agrozumos | Lekunberri | **ELA 9 / 9 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |

Adibidez, soldaten egoera azaltzeko, Excel artxibo bat sortu zuten, langileek, soldata sartuta, beharrezko informazioa jaso zezaten.

Hauteskunde aurreko egoera ez zen batere xamurra Iberdrolan. Oso hitzarmen txarra zeukaten eta UGT eta CCOO, gezurretan, ELAk horren alde egin zuela esaten hasi ziren. Desinformazioari informazio zintzo eta hurbilarekin irabazi zion ELAk. Aurrekoan baino ordezkari gutxiago aukeratzen baziren ere, gora egin zuen ELAk. “Sabaia ez dugu jo, gainera. Lanarekin, hazten jarraituko dugu”, bukatu du Gorkak.



## “Lantokietara bisitak egitea ezinbestekoa da”

Gipuzkoako komisariak garbitzen dituzte **Garbialdi**ko langileek. Gutxi dira eta ez dute taldeka lan egiten; “bakoitza izkina batean”, dio **Nekane Zabala** delegatuak. Desinformazio ekosistema biribila da, “eta enpresari hori interesatzen zaio”, gehitu du.

Ez da esajerazioa. Lantokietara bisitak egiten hasi eta askori merezi zuten antzinatasuna ordaintzen ez zietela ikusi zuten. Nomina digitalak bidaltzen hasi zen enpresa eta batzuentzat nahasia izan zen. “Tranpa asko egiten dituzte”, eta horri beldurra gehitu behar zaio: “Asko ez dira finkoak eta beldurra diote erreklamatzeari. Gure lana konfiantza ematea da eta, horretarako, bisitak ezinbestekoak dira. Beraiekin egotea eta behar duten denbora eskaintzea”.

Erreklamazioak egiten irakasten diete eta, ongi atera ezean, beraiek sartzen dira. Kontrola eskuratzeko kemena bezalakoa da. “Pozgarria da guretzat eta beraiek konturatzen dira sindikatuaren beharraz”.

Greba egin behar izan zuten 2018an eta horrek taldea trinkotu zuen. WhatsApp taldeak ere bakarrik ez sentitzen laguntzen die, “eta oso garrantzitsua da hori”. Delegatu bat gehiago lortu du ELAk aurten, baina negoziaketa gogorra dator. “Grebak beldurra ematen du, baina gauzak lortzeko bide bakarra hori dela argi daukate langileek”, amaitu du.



## “La gente ve quién está a su lado en la huelga”

El año 2022 no fue sencillo en **Altan Bernedo**, donde **Liliana Villamor** es delegada de ELA. La empresa se negaba a hablar sobre un nuevo convenio y, en noviembre de 2021, la plantilla decidió ir a la huelga.

| Enpresa | Herria | Lehen | Orain |
|---|---|---|---|
| **Industria eta Eraikuntza** | | | |
| CIE Legazpi | Legazpi | **ELA 6 / 9 (% 66,67)**<br>LAB 2<br>UGT 1 | **ELA 8 / 9 (% 88,89)**<br>LAB 1<br>UGT 0 |
| Envaplaster | Biana | **UGT 3 / 5 (% 60)**<br>CCOO 2 | **ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>CCOO 3<br>UGT 1 |
| Altuna y Uria | Azpeitia | **ELA 8 / 9 (% 88,89)**<br>LAB 1 | **ELA 9 / 9 (% 100)**<br>CCOO 0 |
| Vicarli Handling | Uharte | CCOO 2<br>**ELA 1 / 5 (% 20)**<br>LAB 1<br>UGT 1 | CCOO 1<br>**ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>LAB 2<br>UGT 1 |
| Exkal | Marcilla | UGT 8<br>**ELA 1 / 9 (%11,12)** | UGT 9<br>**ELA 4 / 13 (% 30,77)** |
| Sagola | Gasteiz | UGT 5 | **ELA 4 / 5 (% 80)**<br>UGT 1 |
| **Gizalan** | | | |
| Donostiko Udala | Donostia | **ELA 30 / 53 (% 56,60)**<br>LAB 15<br>CCOO 6<br>ERNE 2<br>ESAN 0 | **ELA 33 / 55 (% 60)**<br>LAB 12<br>CCOO 5<br>ERNE 3<br>ESAN 2 |
| Gasteizko Udala | Gasteiz | **ELA 10 / 27 (% 37,04)**<br>LAB 4<br>CCOO 5<br>BESTEAK 8 | **ELA 10 / 27 (% 37,04)**<br>LAB 5<br>CCOO 6<br>BESTEAK 6 |
| Irungo Udala | Irun | **ELA 2 / 5 (% 40)**<br>LAB 1<br>CCOO 2 | **ELA 4 / 5 (% 80)**<br>LAB 1 |
| Euskotren | EAE | **ELA 14 / 35 (% 40)**<br>**LAB 9**<br>CCOO 5<br>UGT 2 | **ELA 18 / 43 (% 41,86)**<br>**LAB 12**<br>CCOO 3<br>UGT 4 |

Se prolongó tres meses y pico y, finalmente, llegaron a un acuerdo con la dirección. “No logramos todo lo que queríamos, pero nos quedamos contentos porque conseguimos registrar el convenio”, dice.

Después de la huelga, el ambiente en el centro era “un poco complicado”. La huelga influyó las elecciones hasta el punto de impulsar una candidatura independiente, formada por gente que siempre se había mantendio al margen. Han sacado un delegado “muy afín al jefe”, apunta Lili.

Tras un año complicado, ELA temía perder un delegado que, al final, consiguió mantener. El que lo perdió fue  LAB. “La gente ve quién está a su lado en la huelga, quién está en todas las reuniones, quién trabaja por mejorar las condiciones. Y también ve quién no”.

Este año no será fácil, “porque la huelga es dura”. “Pero la gente ha visto que se consiguen cosas. Y la empresa también lo ha visto; sabe que tenemos la fuerza necesaria y eso afectará la negociación”.



## “Posta bidezko botoak asko zaindu behar dira”

Bereziki latza izan zen pandemia arreta soziosanitarioko langileentzat: beraien beharra biderkatu zen eta beraiek zituztenak mututu zituzten. Pandemia-ostea ez zen xamurragoa izan; gutxieneko zerbitzuak %100ekoak izango ziren, ahotsa altxatzeko eskubidea trenkatuz.

Egoera horretan, aparteko garrantzia izan zuten hauteskundeek eta “bozka bat bera ere” ez zuten galdu nahi **Bego Gainza** eta **Ana Merchan**, ELAko ordezkariak **Eulen**en. Azkenik, aurreko lau urteetako lan handia islatu dute bozkek. 21 ordezkaritik 18 lortu dituzte. “Jendeak minutua eta emaitza nahi du”, dio Begok. “Telefonoa hartu eta zu hor egotea”. Nominekin, oporrekin, ordutegiekin... langudu dituzte langileak. Horrela, beste sindikatuetako afiliatu askok ere bozka eman diete.

Posta bidez bozkatzeari eman diote berebiziko garrantzia: “Asko zaindu behar da. Hauteskundeak egun txarretan izan ahal dira eta bozka guztiak behar ditugu”, 400 boto jaso dituzte horrela azkenean, eta duela lau urte lortutako ordezkariak baino bi gehiago dituzte orain.



## “Lo más importante es respaldarse unos a otros”

| Enpresa | Herria | Lehen | Orain |
|---|---|---|---|
| Euskotren | EAE | BESTEAK 5 | BESTEAK 6 |
| EiTB Irratiak | EAE | **ELA 15 / 23 (% 65,22)**<br>LAB 5<br>ESK 2<br>CCOO 1 | **ELA 14 / 23 (% 60,87)**<br>LAB 7<br>ESK 2 |
| BioDonostia | Donostia | | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| Hospital Cruz Roja Bilbao | Bilbo | **ELA 9 / 9 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| Abeletxe Erresidentzia | Ermua | **ELA 2 / 5 (% 40)**<br>LAB 1<br>BESTEAK 2 | **ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>LAB 4 |
| Eulen Servicios Sociosanitarios | Donostia | **ELA 16 / 21 (% 76,19)**<br>LAB 4<br>CCOO 1 | **ELA 18 / 21 (% 85,71)**<br>LAB 3 |
| Calasancio Escolapios | Bilbo | **ELA 5 / 5 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| Maristak Bilbo | Bilbo | **ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>STEILAS 4 | **ELA 9 / 9 (% 100)**<br>STEILAS 0 |
| Pureza María | Bilbo | **ELA 9 / 9 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| Nuestra Señora de Begoña / Jesuitas de Indautxu | Bilbo | **ELA 9 / 9 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| Nuestra Señora del Carmen | Bilbo | STEILAS 3<br>**ELA 2 / 5 (% 40)** | **ELA 3 / 5 (% 60)**<br>STEILAS 2 |
| Angeles Custodios | Bilbo | **ELA 4 / 5 (% 80)**<br>CCOO 1 | **ELA 4 / 5 (% 80)**<br>CCOO 1 |
| La Inmaculada | Bilbo | **ELA 3 / 5 (% 40)**<br>STEILAS 2 | **ELA 5 / 5 (% 100)**<br>STEILAS 0 |
| Salesianos Deusto | Bilbo | **ELA 9 / 9 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| El Ave María | Bilbo | **ELA 2 / 3 (% 66,67)**<br>LAB 1 | **ELA 2 / 3 (% 66,67)**<br>LAB 1 |
| Pureza María | Bilbo | **ELA 9 / 9 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| Jesus Maria | Bilbo | **ELA 5 / 5 (% 100)** | **ELA 5 / 5 (% 100)** |
| Ariznabarra Erresidentzia | Gasteiz | **ELA 8 / 9 (% 88,89)**<br>CCOO 1 | **ELA 9 / 9 (% 100)**<br>LAB 4 |
| Solera Navarra SLU | Iruñea | LAB 1 | **ELA 4 /4 (% 100)**<br>LAB 0 |

"La empresa es como es, lo que nos sorprende es la actitud del otro sindicato", dice **Roberto González**, delegado de ELA en **Icer Rail**. Junto a **Juan Morales** y **Javier Etxauri**, ha dado la vuelta a un comité en el que UGT contaba con 6 representantes y ELA con 3, tras una huelga de 186 días. "A la gente no le gusta el conflicto, pero a veces no te queda otra", apunta.

En esa coyuntura, los tres delegados han estado disponibles cada vez que un compañero lo necesitaba: "Lo más importante es respaldarse unos a otros", sobre todo, cuando la empresa ha jugado a meter miedo y el otro sindicato ha callado.

No es de sorprender que haya afiliados de UGT que han votado a ELA y que un gran número de los votantes quiera mantener su afiliación en secreto. Han sido unos años complicados con despidos improcedentes y anulados en los juzgados, un acuerdo de UGT muy por debajo de las necesidades de la plantilla y algunas lesiones, en una fábrica que requiere de trabajo físico. "Han sido muchos sinsabores y los compañeros tienen ganas de luchar por lo que se merecen. Habernos organizado bien y el apoyo de ELA han sido fundamentales para poder exigir unas condiciones dignas".



## "Hitzarmenerako lehen urratsa elkartzea da"

Gipuzkoako soroslea da, aspaldi, **Iker Ostolaza**. Lan baldintzak bermatze aldera Udaletxeek gutxiengo esku hartzea egin bazuten ere, **Gurutze Gorria**ren ardurapean daude. "Baina langileon eta enpresaren arteko hitzarmenik ez daukagu oraindik", argitu du. Enpresa berdinarentzat lan egiten dute sorosle guztiek, baina askok ez zeukaten plantilla bat izatearen kontzientzia. "Batzuk elkar ezagutzen genuen eta hondartza desberdinetako berezitasunak ezagutzen genituen: funtzionamendua, eginbeharrak, moduak... Baina ez geunden batuta. Eta hitzarmen on bat lortzeko lehen urratsa elkartuta egotea da".

Oso langile gazteak izan dira, urtetan zehar, sorosle gehienak eta, Ostolazak dioen moduan, zaila da ulerraraztea borroka egin gabe ezer gutxi lortzen dela. "Epe laburrerako lan bezala ikusi izan dute hau, ez-profesional bezala. Baina baldintzak onak badira, bizimodua ere izan daiteke", azpimarratu du.

Horretan laguntzeko hurbildu ziren ELArengana, orain bospasei urte. "Bideratu egin gintuzten eta eman beharreko pausuak azaldu zizkiguten". Horrela antolatu zuten lehen greba, "mileurista izateari uzteko". Eta arrakastatsua izan zen. Taldea sendotzeko beste zedarri bat izan da hauteskundeotan parte hartu eta delegatua ateratzea. Eskubideen aldeko borroka erraza ez bada ere, taldean lorpenak handitzen dira.

| Empresa | Herria | Lehen | Orain |
|---|---|---|---|
| **Zerbitzuak** | | | |
| Kutxabank | EAE | **ELA 35 / 84 (% 41,67)**<br>CCOO 20<br>PIXKANAKA 14<br>LAB 13<br>ALE 2 | **ELA 39 / 78 (% 50)**<br>CCOO 12<br>PIXKANAKA 15<br>LAB 10<br>ALE 2 |
| Ibermática | Zamudio | **ELA 11 / 17 (% 64,70)**<br>CCOO 6 | **ELA 12 / 21 (% 51,14)**<br>CCOO 6<br>LAB 3 |
| Azafatas Ercilla | Bilbo | **ELA 4 / 5 (% 80)**<br>LAB 1 | **ELA 5 / 5 (% 100)** |
| Zaintzen S.A. | Erandio | **ELA 3 / 3 (% 100)** | **ELA 5 / 9 (% 55,56)**<br>CCOO 2<br>LAB 2<br>UGT 2 |
| Smart D. R. (Amazon) | Oiartzun | | **ELA 5 / 5 (% 100)** |
| ISS Garbikuntza | Eibar | | **ELA 8 / 13 (% 61,54)**<br>LAB 2<br>ESK 1<br>CCOO 1<br>UGT 1 |
| Limpieza y Servicios Maju | Nafarroa | **ELA 6 / 13 (% 46,15)**<br>LAB 3<br>CCOO 2<br>UGT 2 | **ELA 7 / 13 (% 53,85)**<br>LAB 2<br>CCOO 1<br>UGT 3 |
| DSV | Oiartzun | **ELA 5 / 5 (% 100)** | **ELA 9 / 9 (% 100)** |
| Vicarli Truck | Nafarroa | UGT 2<br>CCOO 3 | **ELA 2 / 5 (% 40)**<br>UGT 1<br>CCOO 2 |
| Garbialdi S.A. | Donostia | **ELA 7 / 13 (% 53,85)**<br>LAB 2<br>CCOO 2<br>UGT 1<br>ESK 1 | **ELA 8 / 13 (% 61,54)**<br>LAB 2<br>CCOO 2<br>UGT 1 |

# Akordio historikoa Gipuzkoako ehungintzan











Hemeretzi greba egunen ostean, oso hitzarmen ona sinatu dute Gipuzkoako ehungintza merkataritzako langileek. ELAk % 85eko ordezkaritza du negoziazio mahaian eta mobilizazioak bultzatu ditu.

**> Ander Egiluz Beramendi**

Urte berriko kanpaiak, Olentzeroren bisita, San Ildefontsoko haurren loteria... Gipuzkoako ehungintza merkataritzako langileek ekintza koloretsuz eta aldarriz bete zituzten kaleak Gabon inguruan, lan baldintzak eta patronalaren jarrera salatzeko. “Haserre zeuden emakume hauek”, dio Amaia Pintado ELAko Zerbitzuko kideak, oso feminizatuta dagoen sektoreko langileen inguruan. “Protesta egin nahi zuten eta eroso sentituko ziren modu batean egin nahi zuten”. Horrela otu zitzaizkien aldarri ikusgarriok.

Uno de los éxitos del convenio es la inclusión del plus de 100 euros al mes para los puestos afectados por las nuevas formas venta.

Langile batzuk 2009tik zuten soldata izoztua, urte hartan iraungitu baitzen azken hitzarmena. Izan zen beste bat, 2010etik 2018ra bitartean, baina inpugnatu eta baliogabetu zuten. Hala, langileen % 50eri ez zizkieten akordio hartako igoerak aplikatu. Edozelan ere, 2018tik ez du sektoreak hitzarmen berririk izan.

**2010etik 2025era arte**

Sinatutako hitzarmenak hamabost urteko indarraldia du, 2010etik 2015era arte, eta plantillentzako ezinbestekoak ziren zenbait puntu jasotzen ditu. Besteak beste, soldata taulak % 14,1 eguneratzea, “urte

horietako inflazioaren batura", Pintadok azalduta. "Eta 2022tik 2025era bitarteko soldata igoerek erosahalmenari eustea bermatuko dute", gehitu du.

Sektoreko denden egoera oso desberdina da: alde batetik, kate nagusietako martxa oso ona da, "gero eta gehiago fakturatzen dute urtean", Pintadoren esanetan. "Baina denda txiki batzuk estu daude". Bietan, haatik, internetek izan du eragin zuzena eta, ondorioz, horietan lan egiteko baldintzetan ere. "Online prozesuak dirua dakar, baina langileen lan karga hazten doa eta funtzioak asko aldatzen dira". Horregatik sartu dute salmenta prozesu berrien klausula bat hitzarmenean. Horri esker, hilean 100 euro gehiago jasoko dituzte egoeragatik lana aldatu zaien langileek.

**Partzialtasunaren drama**

Langileen artean partzialtasuna "drama bat" dela aitortu du Pintadok. "Gure ordezkari batzuk 20 urte daramatzate lanean 20 orduko lanaldiekin, eta lan orduak handitzeko aukerarik gabe". Horrek bikoteen soldatarekiko menpekotasuna sortzen du askorentzat eta, nahiz eta gazte askok epe baterako lan bezala hartzen duten, urteak pasa eta berdin jarraitzen dutela ikusten dute. Egoera hori "oso orokortua" dagoela azpimarratu du ELAko kideak eta, horri aurre egiteko, orduak kontsolidatzeko artikulua sartu dute akordioan. Horrez gain, kostata baina igandeak eta jaiegunak atseden egun gisa bermatzea lortu dute. Astelehenetik larunbaterako lanaldiaren banaketa arautuko da, langileen kontziliazioa bermatzeko.

Negoziazioak nekezak dira beti, hare gehiago, sektore honetan bezala, tradizio sindikalik ez dagoenean. Lan handia egin dute sindikatuko kideek eta sektoreko langile guztiek, dinamika berriak sortu, gutxiengoak adostu eta mobilizazioak aurrera eramateko. Eta azkenean, Amaia Pintadok adierazi duen moduan, "aldarrikapen ia guztiak" lortu dituzte. Badute zer ospatu. ■



# Las huelgas en Limpieza reducen la brecha salarial

## Las empleadas subcontratadas de Irizar, Plaza Bizkaia y el Ayto. de Hondarribia celebran lo conseguido tras meses de huelga.

**> A.E.B.**

El sector de la limpieza, especialmente feminizado, ha sido testigo de la firma de tres nuevos acuerdos que llegan tras cuatro y siete meses de huelga. Las trabajadoras de Teliman (Irizar), Zaintzen (Plaza Bizkaia) e ISS (Ayto. de Hondarribia) han suscrito mejoras importantes en las condiciones laborales, entre las que destaca la reducción de la brecha salarial, una de las principales luchas de las plantillas y de ELA.

El salario anual en el sector de la limpieza viaria de Gipuzkoa, en el que el 76% son hombres, es de 25.500 euros. ELA utiliza este convenio para marcar la brecha salarial del sector en la CAPV, ya que se situa en la media de la comunidad autónoma. Y ahora, gracias a estas firmas, las empleadas de estas tres empresas han conseguido reducir esa diferencia de manera importante.

La caja de resistencia de ELA ha sido esencial en la victoria de las empleadas del Ayto. de Hondarribia, que cesaron su trabajo hacía siete meses, y han firmado un convenio hasta 2026. El acuerdo garantiza el poder adquisitivo de la plantilla y dos días de uso libre.

En Plaza Bizkaia, tras cuatro meses de huelga, las trabajadoras han conseguido subidas salariales cercanas al 20% y un sistema por el cual podrán ampliar el número de horas laborales, hasta conseguir la jornada completa. Esta forma de cobertura de vacantes garantizará que las empleadas con más antigüedad sean las primeras en ser consideradas para ampliar su horario de empleo.

Las trabajadoras de Teliman, empresa subcontratada para las labores de limpieza de Irizar, han firmado un acuerdo con vigencia entre los años 2017 y 2025, que garantiza el IPC y recoge sus principales reivindicaciones. Además de la sustitución de bajas, los blindajes y la bolsa de trabajo para las trabajadoras eventuales, cabe destacar el reconocimiento del plus de toxicidad y el compromiso, por parte de la empresa, de atajar ese problema. A este respecto, es importante subrayar que las trabajadoras directas de Irizar que realizaron el trabajo de limpieza durante la pandemia sí recibieron ese plus. ■

# Hezkuntza publikoko eremu guztietara zabaldu nahi ditu ELAk lortutako garaipenak

Martxoak 30 izango dira hauteskunde sindikalak EAEko Hezkuntza Publikoan. 361 ordezkari daude jokoan, zazpi sindikaturen artean banatzekoak. ELA da sektore guztietan ordezkariak dituen bakarra.

**> Ander Egiluz Beramendi**

Hilabete eta erdi falta da EAEko Hezkuntza Publikoko hauteskunde sindikaletarako. 361 ordezkari daude jokoan eta ELAk duen presentzia indartu nahi du. Unibertsitatez kanpoko hezkuntzan lehen sindikatua da egun, ordezkarien % 41ekin, eta emaitzak hobetzeko lanetan dago unibertsitate publikoa barne hartzen duten hauteskundeotan ere.

Sei sektoreko langileek bozkatuko dute: Irakasle funtzionariak; Heziketa bereziko langileak eta irakasle laboralak; Sukalde eta garbiketako plantillak; Haurreskoletakoak; EHUkoak; eta Erlijio irakasleak. Sindikatuen artean, ELA da sektore denetan ordezkariak dituen bakarra.

**Mobilizazioen indarra**

Miren Zubizarreta ELAko hezkuntza arduradunak esan bezala, “lehen sindikatua garen lekuetan




mobilizazioak eta grebak bultzatuko ditugu, garaipenak bide horretik datozelako”.

Horren erakusgarri dira EAEko Gizarte Ekimenean eta Hezkuntza Publikoko sukalde eta garbiketan lortutakoak. Lehenengoa 2020an izan zen, 29 greba egunen ostean. ELAk % 60 inguruko ordezkaritza dauka hor eta oso lan hitzarmena ona lortu zuten.

2022ko abenduan, sukalde eta garbiketako langileek lortutako garaipena ere oso esanguratsua izan zen. Lehen sindikatua da sektore horretan ere ELA, eta azken bi ikasturteetan hamar greba egun egin ostean —eta mobilizazioekin jarraitzeko intentzioa argi utzi ostean—, behin-behineko langileak kontsolidatzeko akordioa lortu zuen Eusko Jaurlaritzarekin.

ELAk egindako presioari esker, 480 plaza finkatuko ditu Lakuak, merezimenduetan oinarritutako deialdi baten bidez. Nabarmentzekoa da, gainera, lan egindako denborak beste merezimenduekin alderatuta izango duen pisu erlatiboa.

Martxoko hauteskundeen ostean, Hezkuntza Publikoko gainerako sektoreetan ere lan baldintzak hobetzeko lanean jarraituko du sindikatuak. “Bozkak banan-banan lortuta”, Zubizarretaren berbatan, langileen alde borrokatzeko presio eremuak bereganatzen jarraituko du Euskal Sindikatuak. ■

## Cadena humana por una Educación Pública de calidad

**> A.E.B.**

A mes y medio de las elecciones sindicales en la Educación Pública de la CAPV y con la nueva Ley aún en el horno, ELA organizó un jornada informativa y de movilizaciones el 14 de febrero, en Bilbo, bajo el lema *Hekuntza eraldatu. Langileak zaindu. Aurreproiektu honi ez.* (Cambiemos la educación. Cuidemos a las y los trabajadores. No a este anteproyecto.).

Las oficinas del Colegio de Abogados de Bizkaia acogieron a representantes sindicales de los distintos sectores de la Educación Pública y Concertada y a afiliadas y afiliados de ELA.

En la presentación, la responsable de ELA Hezkuntza Miren Zubizarreta explicó las fases de la Ley, su repercusión en las condiciones laborales de las plantillas y la postura del sindicato. También se habló sobre el presente conflicto en la Educación Concertada.

Al final del encuerto, los alrededor de 300 participantes realizaron una cadena humana desde Moyua hasta la sede del Gobierno Vasco. ■

# San Juaneko ospakizunak

> A.E.B.

Ez da ekainean izan, abenduan baizik, Zumaiako San Juan egoitzako ospakizuna. 2016tik izoztuta zegoen hitzarmena eguneratu dute 52 langileek, greba mugagabea hasi eta gero. % 13ko soldata igoerak izango dituzte, bai eta 2019-2022 urte bitarteko igoerei dagozkien atzerapen guztiak ere. Hobekuntzak, gainera, bermatuta dituzte. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kabia erakunde autonomoa da egoitzaren titularra, baina langile guztiak daude Zaintzen S.A. enpresak azpikontratatuta. Hitzarmena iraungitu zenetik, langileen erosahalmena %11 jaitsi zen. ■




# Hay que movilizar Osasunbidea

## Tras siete años de Gobierno progresista, no se han revertido los recortes de UPN.

> A.E.B.

Los problemas estructurales de Osasunbidea persisten. Siete años después del Gobierno de UPN, ni PSN, ni Geroa Bai, ni EH Bildu, ni Ahal Dugu, ni Izquierda-Ezkerra han querido reforzarlo. En esta coyuntura, el Sindicato Médico de Navarra (SMN) ha decidido apretar un poco más y poner en jaque al Gobierno de María Chivite (PSN, Geroa Bai y Podemos-Ahal Dugu, con el apoyo de EH Bildu e Izquierda-Ezkerra), y ha exigido retirar la cláusula de exclusividad: un plus que cobran los y las facultativos de Osasunbidea por renunciar a trabajar en centros privados (en Osakidetza no cuentan ni con ese plus, ni con esa limitación). Ante la negativa del Gobierno, el SMN llamó una huelga solo cancelable con una subida de 1.000 euros al mes, exclusiva para médicos/as. En dos años, el resto de sectores en Osasunbidea ha pérdido el 7% del poder adquisitivo, y el Gobierno se niega a enmendarlo.

La inversión en Osasunbidea debe repercutir a toda la plantilla, no solo a los sectores con más ingresos. Y debe mejorar, en particular, la Atención Primaria.

**Al sur de Europa**

El porcentaje del PIB que los países de la UE invierten en el sistema público de salud es, de media, el 8%. En Nafarroa, es el 5,6%. Un porcentaje que no ha variado desde los recortes de UPN. Asimismo, el número de profesionales por cada 1.000 habitantes es, en Nafarroa, inferior al de los países de la OCDE (Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos): 5,1 enfermeros por cada 1.000 habitantes en Nafarroa, frente a los 8,8 de media en el resto de países; y 2,5 médicos en Nafarroa, frente a los 3,6 de media en la OCDE.

La temporalidad es del 40%, una cifra que Europa y la Cámara de Comptos consideran excesiva y que ELA exige reducir al 8%. Junto a ello, el sindicato pide extender a todo el personal un sistema de carrera profesional basado en criterios objetivos y un compromiso para abordar las cargas de trabajo.

En los últimos años, las peticiones corporativistas del SMN se han convertido en la triste referencia de movilizaciones en el sistema público de salud navarro. Ante ello, ELA ha impulsado movilizaciones y huelgas, pero no ha sido hasta hace unas semanas cuando el resto de sindicatos del sector público han decidido convocar movilizaciones, como la huelga del 15 de febrero. ■

# “ELAk eta LABek, edukietan oinarritutako hitzarmen potentea lor lezakete”

Gipuzkoako Metalean %47,79ko ordezkaritza du ELAk, “ondo negoziatu izanaren seinale”, Patxi Zubizarreta eta Esther Arrutiren iritziz. Patronalarekin hitz egin aurretik, egoera analizatu dute.

> **Ander Egiluz Beramendi**

**Zelakoa izango da negoziaketa?**

**E:** KPIa altua izateak zailduko du gure lana, geure helburuetako bat KPIa bermatzea delako.

**P:** Beste sindikatuen jarrerak ere baldintzatuko du negoziazioa. Araban eta Bizkaian ez dugu lortu langileentzat onak diren edukietan oinarritutako batasuna. Gu prest gaude guztiekin jesartzeko, beti langile klasearen onurako.

**Araban sinatutako akordioa ELAk nahi zuenarengandik urrun dago.**

**P:** Arabako edukiak ez dira onargarriak Gipuzkoan, garailea patronala izan zen.

**Gipuzkoako Mahaian eragingo du?**

**P:** Baliteke, baina ELA eta LAB batuta, ia %85 daukagu Gipuzkoan. Elkarlanarekin, edukietan oinarritutako hitzarmenak eduki potentea izan dezake.

**Bizkaian egindako hamaika eguneko grebak eraginik du ADEGIrengan?**

**P:** ADEGIk badaki Gipuzkoan greba arrisku berdina duela. Bizkaian edukiak ez dira nahikoak, horregatik ez da sinatu, baina ez dakigu ADEGI nola agertuko den.

**Eduardo Junkerak esan zuen kultura berria behar dela erronka globalei aurre egiteko: transformazio digital eta energetikoa, eskasia demografikoa eta erakunde gero eta humanistagoetarako dagoen joera.**



**E:** Hitzez haratago ekintzak behar dira. Gipuzkoako Metaleko aberastasunaren protagonistak langileak direla aitortzeko prest dago patronala? Gainera, digitalizazioa eta robotizazioa eurentzat aukera den bezala guretzat mehatxua izan daiteke, erritmoak handitu eta lanpostuak desagertu daitezkeelako. Eta erakunde humanistikoekin kooperatibismo faltsu batera eraman nahi dute langilea.

**P:** Sindikatuak ahuldu nahi dituzte indibidualizazioa indartuz.

**Diskriminaziorik gabeko lan eremua funtsezkoa dela diozue, non lan osasuna bermatu eta langileak errekonozituta sentituko diren.**

**E:** Iaz 55 hildako egon ziren EAEko lan eremuetan. Heriotza muturreko kasua da, baina ez arazo larri bakarra. Istripuak, gaixotasunak, arrisku psikosozialak... Gaixotasun arruntak eta laneko bajak % 100 konplementatzea nahi dugu, enpresak % 25 jar dezala, badutelako erantzukizunik.

**P:** Metalean baldintza kaskarrak dituzten azpikontrata asko daude, eta prekarietateak hil egiten du. Lana eta bizitza uztartzeko garaia da.

**E:** Sektore batzuetan lortu dugun subrogazioa guztientzat nahi dugu. Lanaldi murrizketa funtsezkoa da. Euskara plana eskatzen dugu ere, 50 langile baino gehiagoko enpresetan. Eta horietan ere, berdintasun plana beharrezkoa da, baina komitearekin akordioa lortzea ez, eta garrantzitsua da hori. Sexu jazarpenen protokoloa ere sartu nahi dugu hitzarmenean.

**Langileak aktibatuta daude?**

**E:** KPIa handia da eta jendea kezkatuta dago. Gainera iaz ikusi zuten soldatak % 6,5 igotzea lortu genuela. Hitzarmen probintziala garrantzitsua da.

**Zelakoa da sektorearen egoera?**

**P:** Enpresen egoera ona da, nahiz eta kontrakoa dioten. Ez da garai txarra negoziaketa ona lortzeko. ■

# Una lucha ejemplar, un pésimo acuerdo.

En la asamblea del Metal de Bizkaia, ELA dice no contenido mediado por Lakua.

**> Mikel Etxebarria**

En julio de 2021, ELA inicia las asambleas con la militancia de para preparar la negociación del convenio. A finales de 2022, el IPC se dispara y, como primer sindicato, se reune con LAB para plantearles un trabajo en común, con compromisos, ampliable al resto de sindicatos. La respuesta fue clara: no.

La prepotencia y falta de respeto de FVEM no fue sorprendente, son sus señas de identidad. Por ello, ELA tomó la iniciativa y trató de lograr del resto de sindicatos unos mínimos y un calendario de huelgas. No consiguió lo primero, y lo segundo, tras muchas reuniones, concluyó con los primeros tres días de huelga.

En esas jornadas, los y las metalúrgicas demostraron ser el mejor valor del sector. La patronal no se movió y se intentó continuar con un calendario de huelgas contundente. Pero el resto de sindicatos acordó un paupérrimo convenio en Araba que, en materia salarial, se aplica al 10% de las plantillas. Y eso es preocupante. No se puede reproducir en Bizkaia, ya que para la inmensa mayoría supondría continuar empobreciéndose. Así, se traslada al resto de sindicatos la necesidad de acordar unos mínimos pero, una vez más, la respuesta fue negativa.

La lucha continuó con huelgas y movilizaciones donde la militancia de ELA realizó sus propias manifestaciones. Desde el sindicato, el mensaje es claro: no se fallará a quienes luchan.

En el conflicto ELA se ha enfrentado a la patronal y al poder económico y político. Lakua, un vez más, se ha posicionado con la patronal, utilizando la ley mordaza y tratando a los y las huelguistas como delincuentes. La consejera Tapia, ante el planteamiento de ELA de convocar una huelga indefinida, señaló su rechazo porque “podría paralizar todo el territorio”. Es incomprensible que el resto de sindicatos hayan desactivado la lucha solicitando la mediación del propio Gobierno.

El acuerdo se rubricó el 3 de febrero, con unos contenidos casi idénticos a la propuesta de FVEM. La escenificación de patronal, Gobierno, CCOO, LAB y UGT no se entiende. Es una falta de respeto a los trabajadores y trabajadoras que han luchado frente a la insaciable patronal y el Gobierno.

Tras la asamblea de militantes del 7 de febrero, ELA ratifica su rechazo a unos contenidos insuficientes y el compromiso con la continuidad de la lucha en los centros de trabajo para mejorar las condiciones de la clase trabajadora del Metal de Bizkaia. ■

## Fiasco en Araba

**> Landeia**

La negociación del convenio del Metal de Araba venía precedida por dos hecho de peso: uno, que el último acuerdo en mayoría se acordó en pesetas, y dos, que UGT y CCOO durante años han acordado en minoría. ELA quiso romper esa dinámica, apostando por un convenio en mayoría que hiciese frente a la precariedad, la brecha de género y que garantizase un salario de 1.400 euros. Consiguió un acuerdo con CCOO y LAB con esos contenidos y se convocaron tres días de huelga. Pero a puertas de tres nuevas jornadas, los citados sindicatos rompieron la unidad y firmaron el acuerdo diseñado por UGT y la patronal. Los contenidos son paupérrimos y no incrementa el salario del 90% del sector. Sin duda, una oportunidad perdida. ■

## Nafarroa, a la deriva

**> Landeia**

En enero de 2022 comenzó la negociación del convenio del Metal de Nafarroa, siendo ELA el primer sindicato, con el 28,92%. UGT y CCOO, en conjunto, sumaban algo más del 50%. Ante la falta de avances, tras el verano ELA realizó en solitario unas movilizaciones muy positivas. Pero en octubre, UGT y CCOO firmaron un acuerdo con las patronales sin garantizar subidas salariales parejas al IPC, dando flexibilidad a las empresas para no aplicarlo y sin mención alguna al derecho de subrogación, entre otras cosas. El sector empezaba a movilizarse y UGT y CCOO desaprovecharon la oportunidad. En ELA no hay duda de que hay que impulsar el trabajo organizativo para, mediante la lucha, conseguir convenios con contenidos. ■




## Las trabajadoras de H&M de La Morea parodian a Shakira con sus reivindicaciones y consiguen atención mediática a nivel mundial

En medio de una huelga indefinida que empezaron el 9 de diciembre para mejorar sus condiciones laborales, las trabajadoras de H&M de La Morea la han liado... a nivel global. A pocos días de subir un vídeo en el que parodiaban la última canción de Shakira, contaba con miles de reproducciones y el interés periodístico sobre la lucha de esta plantilla desde puntos tan remotos como Argentina.

Las empleadas de H&M de La Morea tienen el salario congelado desde 2009, y la mayoría con jornadas parciales. Mientras ellas ganan 500 euros, H&M ha repartido 20 millones de euros en dividendos los últimos años.

## ELAk EAJri, EH Bilduri, Podemosi eta Geroa Bairi eskatu die pentsioak kalkulatzeko epea handitzeri uko egin diezaiotela

Kalkulua 25 urtetik 30era pasatzeak pentsioetan 2011ko murrizketari beste bat egitea ekarriko du (orduan % 5ekoa izan zen), eta are eragin handiagoa izango du emakumeentzat eta kolektibo prekarizatuenentzat. Horregatik, ELAk eskatu die kongresuan ordezkaritza duten Euskal Herriko alderdiei konpromisoa har dezatela pentsioen kalkulatzeko kotizazio epea ez handitzeko.

Neurria Next Generation funtsak eskuratzearen truke, Sanchezen Gobernuak Europari onartutako xantaia politikoa dela salatu du ELAk. Mitxel Lakuntzaren ustez, pentsioen elkarrizketa sozialak balio du murrizketa berriak babesteko: "Elkarrizketa soziala sindikatuek burua makurtzeko, murrizketak onartzeko eta bake soziala bermatzeko da". UGTren eta CCOOren babesa Sanchezen Gobernuarentzako "tramite hutsa" dela uste du.

## Convocan manifestaciones para el 25 de febrero en las capitales de la CAPV, en defensa del sistema público de salud

ELA, SATSE, LAB, SME, CCOO y UGT hicieron el llamamiento en una rueda de prensa celebrada en Bilbao. Mientras el Lehendakari Urkullu y la Consejera Sagardui reivindican la ausencia de recortes y privatizaciones, la calidad del servicio sigue a la baja y aumenta la contratación de seguros sanitarios privados.

Las movilizaciones partirán a las 12:00 horas de la plaza del Sagrado Corazón de Bilbo, la plaza de la Virgen Blanca de Gasteiz y el Boulevard donostiarra. Los sindicatos llaman a los y las trabajadoras, a la ciudadanía y a los movimientos sociales a unirse en la defensa de la salud pública.

## 2022an gutxienez 51 pertsona hil dira EAEn lan istripuz

Osalanek 2022ko ezbeharren datu ofizialak plazaratu berri ditu. Erkidegoan 38.166 lan istripu berri jaso dituzte iturri ofizialek 2022an, 2021an baino % 5 gutxiago. Lan istripu baten ondorioz hil diren langileak 30 izan dira, 25 lantokian bertan eta 5 hildako lanera joan etorrian. Aurreko urtearekin alderatuta 5 hildako gutxiago izan dira osalaneko estatistiketan. Lan gaixotasunen kasuan guztira 2.829 komunikatu dira erkidegoan iturri ofizialen bitartez, 2021ean baino %4,5 gehiago.

ELAk bestelako datuak ditu. Lan istripu baten ondorioz EAEn zendutako langileak gutxienez 51 izan dira eta Nafarroan 20. Datu honek agerian uzten du zer nolako ezberdintasun dagoen ELAk jasotako datuen eta iturri ofizialetako datuen artean. Lantokietan hildako 21 langile ez dira azaltzen iturri ofizialetako estatistiketan. Berdin berdin gertatzen da istripu larri eta arinekin. Oraindik okerragoa da lan gaixotasunen kasuan, oso gutxi komunikatzen dira gehienak osasun sistema publikora bideratzen direlako, enpresen eta mutuen onerako.

Ezbehar-tasa altu hauen atzean lan prekario eta lan baldintza duingabeak daude, beharrak bultzatuta edozein modutan lan egitera behartutako langile asko ditugu gure lan merkatuetan, enpresek ez dute prebentzioan dirurik inbertitzen langileon osasun eta segurtasunaren kalterako eta ez daude ikuskari nahikorik prebentzio araudiak betetzen direla bermatzeko eta zigor egokiak jartzeko.

Bai enpresek eta mutualitateek, eta baita Eusko Jaurlaritzak baliabide gehiagorekin eta teknikari-ikuskatzaile gehiagorekin lehenetsi behar dute laneko osasuna eta segurtasuna, onura ekonomikoaren aurretik. ■

# Agur eta eskerrik asko, Jabi!

**Pello Igeregi**
ELAko Negoziazio Kolektiboko arduraduna

Jabi Llantada joan zaigu, bat-batean eta agurtzeko aukerarik eman gabe. Bizi moduan hil da, apal, besteok luze molestatzeko gogorik gabe.
Jabi lankide ona izan da. Trapagaranen, Artxandapen edo Plentziako institutuan ondo dakite hori eta horregatik daude bere lankide izandakoak erabat jota.

Jabi konbikzio handiko pertsona izan da. Konbikzio horrek eraman zuen Artxandapen langileen ordezkari izatera eta ondoren liberatzera. Esan bezala umila izan da, baina era berean begirada zorrozten zitzaionean bere baloreak transmititzeko indar handikoa.

Ondo oroitzen dut Gizalaneko Antolakuntza arduradun nintzela Jabiren lehen Batzorde Federala, militante askok hitza hartzeko lotsa duten eremuan eskua altxatu eta denok xaxatu gintuen pairatzen ari ginen murrizketen aurrean mobilizatu gintezen. Orduan hainbat aldaketa izan ziren itunpeko hezkuntzako liberatuen artean eta Jabi entzundakoan argi izan nuen jende berri horrekin asmatzen ari ginela.



Jabi nire aitaren ikasle izan zen Gernikan.  Azkenekoz hitz egin genuenean berriro ere *Don Imanoli* goraintziak emateko eskatu zidan. Uste dut aitarekiko kariño horren parte bat niretzat ere gorde zuela. Goraintzia horiek bueltan emateko aukerarik gabe geratu beharko dut. Eta Jabiri berriro ere Gernikako "ori-baltzak" ekartzeko aukerarik gabe ere, despiste eta despiste artean noiz helduko ziren argi izango ez nuen arren.

Eta Jabi militante eskuzabala izan da. Eskuzabala beste militanteekiko, laguntzeko prest beti. Eta eskuzabala laguntza behar zuten langileekiko. Gaur ELA dena, besteak beste Jabi moduko inurri lana egiten duten militanteei esker izan da, eta guk Jabiri eskerrak emateko aukerarik gabe agurtu beharko dugu. Baina, era berean, horregatik ere ez da Jabi erabat joan, ereindakoa hemen uzten duelako.

ELAn jende askok oroituko du militante fin hau. Militantzia emate eta jasotze esperientzia da, espero dut Jabiri zer edo zer emango geniola, badakit jaso asko egin genuela! ■

# Las Mujeres*, culpables de todo

**Leire Gallego eta Mirari Ullibarri**
ELAko Genero eta Ekintza Sozialeko taldeetako kideak

Las mujeres siempre hemos sido culpables de todo. Incluso cuando hemos sido víctimas de abuso se nos ha acusado de no haber cerrado lo suficiente las piernas o no haber forcejeado lo suficiente con los agresores, a riesgo de ser asesinadas, claro.

Los avances son lentos; son costosos, pero desde luego se están dando. A pesar de ello, o precisamente a consecuencia de ello, la violencia verbal o física contra las mujeres va en aumento, incluso en espacios públicos, representativos, como es el Parlamento.

En los últimos meses, se han aprobado diferentes leyes (mejores, peores o mejorables) en cuestión de género. A consecuencia de ello, la derecha más retrógrada y casposa, ha denigrado a las políticas parlamentarias que intentaban llevarlas a cabo, de esa manera, la diputada de Vox, Carla Toscano, se refirió a la ministra de Igualdad, Irene Montero como "libertadora de violadores" o la desacreditó de forma machista diciendo que "su único mérito era haber estudiado en profundidad a Pablo Iglesias".



En una cámara pública de representación institucional jamás se ha tratado a un hombre de esa manera. Jamás se trata así a un hombre por hacer política.

Sí, insultar de por sí está mal, y no debería ser admitido, pero insultar por ser mujer o por hacer política para la defensa de los derechos de las mujeres es todavía más repugnante y, por supuesto, misógino. Hay quienes todavía nos quieren recordar que no deberíamos estar copando cuotas de poder que corresponden a los hombres. Se ha de recordar que los órganos de representación popular no son más que el reflejo de una sociedad tanto machista como misógina. Por tanto, aceptar este tipo de vejaciones en un espacio público, no solo afecta a las políticas que las sufren en primera línea, sino que agrede directamente a los derechos de todas las mujeres de la sociedad.

La ultra-derecha no solo peca de misoginia, sino también de racismo. No pierden la oportunidad de vincular la violencia con la inmigración, y así lo hacen a diario, refiriéndose a los maltratadores como "manada importada". Este es un discurso parcial e interesado, ya que se desmiente mirando los datos del INE, que recogen que más del 80% de los delitos sexuales son cometidos por hombres nacidos en España. ■

# ‘Trans’ legea

Hainbeste polemika eragin duen beste lege bat Trans legea izan da. Joan den abenduaren 22an onartu zen Kongresuan, gatazka, eraso eta bulo ugariren ondoren. Lehen, esaten genuen emakumeek indarkeria ezberdinak jasaten jarraitzen genituela egunerokoan, baina trans kolektiboaren egoera are kezkagarriagoa da. Mar Cambrollek, azaroaren 29ko Gasteizko hitzaldian, esan zuen bezala, “trans emakumeak ez gara arrisku bat, arriskuan gaude”. Izan ere, 2022an trans kolektiboaren aurkako erasoak bikoiztu egin dira 2021arekin alderatuta. Zergatik, teorian, genero-identitate desberdinak normalizatzen hasten garenean eta eskubideetan aurrera goazela uste dugunean, erasoak areagotu egiten dira? Erantzuna beti berdina da; batzuek beldur diote beren pribilegioak galtzeari, beste batzuek eskubide gehiago izatearen truke. Ezin dute jasan espazioak eta hegemonia galtzea.

Carmen Calvori, Gobernuko presidenteorde ohi eta orain Berdintasun Batzordeko presidente denari, trans emakumeak emakumeak ote ziren galdetu ziotenean, ez zuen erantzunik eman, e zzen erantzuteko gai izan, eta hori, bere estatuseko pertsona batentzat, onartezina da. Bera izan da legearekiko ahots kritikoenetako bat, eta Legebiltzarreko bozketan abstenitu ziren zazpi pertsonetako bat.

Genero autodeterminazioa ez da soilik beharrezkoa, giza eskubideekiko koherentea ere bada. Legea egin arte, Trans pertsonek bi urtez hormonatzeko baldintza bete behar zuten, eta mediku txostena aurkeztu behar zuten genero disforia ziurtatu eta Erregistro Zibilean sexua aldatzeko. Estatuak Trans kolektiboa gaixo gisa tratatzen zuen. OMEk, 2018an zehaztu zuen genero disforia ez dela gaixotasuna, eta Europako Kontseiluak urte horretan adierazi zuen genero autodeterminazioa zela tresnarik egokiena pertsona baten generoa definitzeko. ■

# ¿Qué puede hacer una persona delegada de ELA por este colectivo?

Desde ELA, nos toca hacer un trabajo muy exhaustivo para defender los derechos de este colectivo en los centros de trabajo. Según datos de la Agencia de Derechos Fundamentales de la UE, el 19% de las lesbianas, gais y bisexuales, 35% de las personas trans y el 32% de las personas intersexuales afirman haberse sentido discriminadas en el trabajo en el último año. Estas discriminaciones ocurren tanto en el proceso de contratación como en el mismo lugar de trabajo.

- Será importante que los y las delegadas de ELA no seamos ajenas a esta situación y que trabajemos para que haya planes específicos que favorezcan la contratación de personas con identidades de género no normativas.

- Tendremos que tener identificados previamente todos los documentos, tablones de anuncios u otros soportes, que contengan información sobre el género de una persona trabajadora, para que pueda producirse un cambio rápido y eficaz en el registro, tan pronto como se solicite.

- La organización familiar es una de las instituciones que omite o discrimina otras formas de organización no normativas. Permisos, licencias y medidas de conciliación no deberían estar sujetas a este único modelo de organización. Es decir, se deben admitir fórmulas ajenas a lazos de consanguinidad.

- Y para todo ello, por supuesto, será imprescindible exigir que la empresa imparta formación para el aumento de la concienciación sobre las diferentes identidades de género y abordar las causas fundamentales de la violencia y la discriminación. ■

# ‘Soilik bai da baietz’ legea

2016ko uztailaren 7a. Denok gogoratuko dugu La Manada taldearen kasua. Gizartearen zati handi baten haserrea bortitza izan zen bost erasotzaileak abusuagatik, eta ez erasoagatik (indarkeriarik ez zelako egon), kondenatzen zituztela jakin zenean.

“En los dos últimos vídeos (la víctima) está agazapada, acorralada contra la pared por dos de los procesados. Expresó gritos que reflejan dolor (…). Las imágenes evidencian que la denunciante estaba atemorizada y sometida a la voluntad de los procesados”. Hori da kasuaren sententziatik ateratako esaldietako bat, indarkeriarik ez dela egon ondorioztatzeko. Hau okerrena ere ez da, epaileetako batek bost inputatuen absoluzioaren alde ere bozkatu zuen, dena borondatezkoa izan zela argudiatuz.

Horri bortxaketaren kultura esaten zaio, bortxaketaren ukapena deskribatzen duen kontzeptu feminista. Taldearen bortxaketa justifikatzen edo ukatzen zutenak dira sumindu zirenak orain dela aste batzuk, epaileek, legea aplikatzeagatik, zigorretako batzuk jaitsi zituztenean. Sexu-delituetarako zigor gogorrenak dituen herrialdeetako bat da Espainia, eta horrek ez du eragin emakumeok seguruago sentitzea.

Lege hau abusu-delituaren eta eraso-delituaren arteko aldeak desagertzeko egin da, hau da, beti adostasun edo baimenaren elementua lehenesteko. Pertsona baten borondatearen aurka jardutea indarkeria da. Horren ondorioz, delitu penala eta zigorrak aldatu egin dira, eta horrek zigor batzuk

**Los feminismos y las izquierdas no deberían aceptar el discurso punitivista de la derecha**

murriztea eragin du. Berrikusi diren eta murriztu ez diren zigor guztiez ez da hitz egiten. Feminismoetatik eta ezkerretatik, ez genuke eskuinaren diskurtso punitibista erosi behar, emakumeen eskubideak ez baitira zigor gogorragoekin defendatzen. Eztabaida klasikoa da zuzenbide penalean, baina heriotza-zigorra dagoen herrialdeetan ere delituak areagotu egiten dira. Politikak biktima babestera eta oraindik matxista den gizarte bat heztera bideratu behar dira, bai edo bai.

Laburbilduz, gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko bidean aurrera egin behar dugu, eta horretarako, politika feministak eta arrazismoaren aurkakoak ezarri behar ditugu. Ekintzen ondorioetan zentratzeaz gain, prebentzioa, baina batez ere hezkuntza, lehenesten dituen politikak. Izan ere, hezkuntza eta hurrengo belaunaldien sozializazioa eraldatzen ez baditugu, gaur egungo aldaketa guztiak ez dira eraginkorrak izango. Eskuinari aurre egin behar diogu, ez soilik diskurtsoekin, ekintzekin ere. Giza eskubideak ez dira eztabaidatzen, defendatzen dira. ■



# Alda: eginahalaren arrakasta



## Iparraldeko HLMko bozketetan garaipena lortuta ere, erabakiguneetatik at utzi zuten Alda. Salatu dute, baina borrokak darrai.

**> Ander Egiluz Beramendi**

Ipar Euskal Herrian, etxebizitza sozialak esleitzeko orduan, erakunde bik dute erabakimena: HSA (Habitat Sud Atlantic, Euskal Hirigune Elkargoari lotutakoa) eta Office 64 (Pirinio Atlantikoetako departamentuari lotutakoa). Lehenengoak, Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan eta, tarteka, Landetan egiten du lan; eta bigarrenak, Pirinio Atlantikoetako departamentuan (euskal probintzietaz gain, Biarno ere barne hartzen duena). Erakunde horietako Administrazio Kontseiluetan eta batzordeetan parte hartu ahal izateko, hauteskundeetara aurkeztu ziren hainbat elkarte, tartean CNL, CLCV, ADEIC... eta Alda. Garaipen esanguratsua lortu zuen Aldak, bi urte dituen elkartea izanik. HSAko bozketan, 5 ordezkaritik 3 lortu zituen eta Office 64koetan, 4tik 2.

**Hauteskunde ez lotesleak**

Hauteskundeak, baina, ez dira zuzenean lotesleak; administrazio kontseilu banak du azken hitza bulegoetan eta batzordeetan zein elkartek parte hartuko duen erabakitzeko. Kontseilu horietan alderdi politikoek dute indar gehien, nahiz eta sindikatu eta etxejabe batzuk ere badauden.

Azkenik, organo bietatik kanpo utzi zuten Alda administrazio kontseiluek. Ordean, askoz bozka gutxiago jaso zituzten elkarte zaharragoak sartu zituzten. “Lapurreta elektorala” salatu zuen Aldak, eta HSA eta Office 64ko lehendakariekin bilera bana eskatu zuen.

### A pesar de haber ganado las elecciones de HML, los consejos dejaron a Alda fuera de los gabinetes

**Bilera gazi-gozoak**

HSAko zuzendaria eta presidentea dira, hurrenez hurren, Lausseni Sangaré eta Roland Hirigoyen. Egoera “kontraesankorra” zela esan zuen lehenak eta “lotsatuta” agertu zen bigarrena, hauteskundeen emaitzak ikusita Alda kanpoan geratu izanagatik. Bilera egin eta ezohiko Administrazio Kontseilua deitu zuten, bulego eta batzordeetan zein elkartek parte hartuko duen bozkatzeko. Bere helburu zilegia lortu zuen Aldak: eserleku bat bulegoan eta beste bat Caleol batzordean, etxebizitza sozialak nori ematen dizkieten erabakitzen duena.

### HSA ha reconocido su error y permite ahora la participación de Alda; no así Office 64

Office 64ko lehendakari eta zuzendariarekin egindako bilera antzua izan zen, baina. Aldaren lan eremua, printzipioz, euskal probintzietan zentratzea nahikoa arrazoia izan da erabakiguneetatik at uzteko. Zentzugabekeriak zentzugabekeri, orain arte legez lanean jarraituko dutela esan dute. ■



# Hego Euskal Herriko ekonomian, bidezko trantsizioa ezinbestekoa da



**Ainhara Plazaola**
ELAko ingurugiroko arduraduna

Larriki zauritua dago lurraldeko ekonomia. Sortzen dituen inpaktu ekologikoek jasanezina egiten dute eta ezinezkoa da etorkizun hurbilean mantentzea. Izan ere, garraioaren eta munduko merkatuaren mendekotasun handia duen metabolismo lineal, fosil eta estraktibista baten inguruan dago oinarrituta.

Gure ekonomiak material berriztaezinen digestore handi batek bezala funtzionatzen du: lurraldearen kanpotik datozen erregai fosilak eta mineralak manufakturatu eta berriz ere bere mugetatik kanpo esportatzen ditu. Ekonomiaren oinarrian industria ekoizpena eta garraioa daude. Gainera, gehien fakturatzen duten jarduerak balio erantsi handiko salgaiak ekoizteko lehengaien enpresak (automobilak, altzairuak...), elikagai industriak, logistika globalizatuaren menpekoak eta energia intentsitate handikoak dira. Iraganean mundu mailako lehiakortasunean arrakastatsu bihurtu gintuzten elementuek, gaur espazio hauskor bilakatu gaituzte.

Enplegu gehien sortzen dituzten sektoreak ez dira sektore iraunkorrenak. Desazkundearen ekonomia gai da enpleguak sortzeko, adibidez, hondakinen kudeaketan, garraio kolektiboan eta elikagaien ekoizpenean. Baina gaur egun, lotura sakona dago enplegua sortzearen, hazkunde ekonomikoaren eta inpaktu ekologikoaren artean. Industria sektorean badago lotura bat

energia kontsumoaren eta okupazio tasaren artean. Bestalde, jarduera ekonomiko guztirako erabakigarria da petrolioaren mendeko garraioa, energia asko irensten duena. Garraioa ezinbestekoa da ekonomia lineal eta nazioarteko baterako. Elikagaien industrian, energia eta material kontsumoari ingurumen eragin handiak gehitu egin behar zaizkio.

Arlo sozioekonomikoan beste aldaketarik egin gabe, energia eta materialen murrizteak lanpostu asko suntsitzea ekarriko luke eta ondorioz, zailtasun handia izango luke langile klaseak beren bizitzak sostengatzeko. Beharrak asetzearen zati handiena merkatutik, eta soldatatik, bereizi ezin duen gizarte batean bizi baikara.

Gainera, Hego Euskal Herriko ekonomiak erronka handi bati egin behar dio aurre: zaintza lana aitortzea, egiten diren lan guztien artean (produktiboa eta erreproduktiboa) pisu gehien duena baita, eta funtsean ezkutatua eta feminizatua baitago.

Baina posible al da egungo egitura ekonomikoa mantentzea sakoneko aldaketarik egin gabe? Erantzuna begibistakoa da, ez da posible, muga asko ditugu:

Planetaren mugak: Erabilitako material gehienak ez dira berriztagarriak eta eskuratzea gero eta zailagoa da. Gas, petrolio eta ikatzaren erauzketak goia jo du. Egoera bera da ekonomiaren metabolismorako material erabakigarri askorena: kobrea (elektrizitatea), fosforoa (elikagaiak ekoizteko), teluroa eta zilarra (elektronika, energia berriztagarrien kaptadoreena barne), plastikoa,...

Energia berriztagarriek ezin dituzte fosilak ordezkatu: Erregai fosilak eta iturri nuklearrak ezin dira goi teknologiako berriztagarriekin ordezkatu. Berriztagarrien ezaugarriak fosilen kontrakoak dira. Energia oso sakabanatuta dago eta ezin dira biltegiratu.

Kapitalismoak ezin du zirkularra izan: Material urrienak ordezkatu egin beharko lirateke betiko berrerabiltzeko beste batzuekin, eta oztopo gaindiezina da hori egungo sisteman. Smartphone batek dituen 50 metalak ordezkatzea ia ezinezkoa da, adibidez.

Beraz, Hego Euskal Herriko ekonomia sakon eraldatu beharko da eta, erronkoi aurre egiteko, lana bizitza sostengatzeko bitarteko gisa ulertu beharko da, eta ez kapitala erreproduzitzeko.

Eraldaketa hau gizarteak ahalik eta gutxien sufrituta antolatzea, eta aldi berean, gizarte justu, demokratiko eta jasangarrietarako bidea irekitzea oso konplexua da. Eraldaketa honetarako, autonomia soziala eraikitzea ezinbestekoa izango da. Herritarren beharrak merkatutik pasatu gabe ase behar dira, hau da, desmerkantilizazioan aurrera egin behar da. Horretarako, ezinbestekoa izango da zerbitzu publikoak indartzea, herritarrei beren osasun, hezkuntza eta bestelako beharrak betetzen laguntzeko. Ezinbestekoak dira, baita ere, aberastasunaren banaketa eta enplegua banatzeko lanaldia murriztea.

Gizarte justuago, demokratikoago eta jasangarriagorantz egiteko desazkundearen alde apustu egitea bide berria da, eta ELA eraldaketaren lema izan behar da. Ezin da enplegu galera edo suntsipen kapitalistaren artean aukeratu. Lan eskubideak eta bizitzarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak bateratuko dituzten trantsizioak bultzatu behar dira, borroka eta negoziazio kolektiboaren bitartez. ■

**Líneas de trabajo para la transformación del metabolismo de la economía vasca hacia la desaceleración:**

• Reducción del consumo de materiales y energía hasta niveles ecológicos, siguiendo criterios de justicia global. Afectaría a sectores como la construcción, el transporte y el turismo.

• Reorientación del sector energético en la economía. Requiere tecnologías renovables y emancipadoras, y desmantelar el oligopolio energético actual

• Creación de una economía menos dependiente de la movilidad. La economía circular solo puede ser local. El sector del transporte y el turismo deben reducirse, y ambos son determinantes para la economía actual de Hego Euskal Herria.

• Revitalización de la industria en pos de un tejido productivo diversificado, basado en materiales y energías renovables y no orientadas a la exportación.

• Recuperación de la silvicultura como eje central, no solo por su capacidad para regenerar ecosistemas, sino por ser fuente de otros recursos.

• Recreación de la economía hacia una economía duradera, poniendo en el centro el cuidado, el sostenimiento de la vida y el reparto de tareas de cuidado muy feminizadas.

# Sanidad Pública vs. neoliberalismo



**Javi Arias**
Aita, semea eta militantea

El título del artículo es un poco pretencioso y tiene, evidentemente, toda la intención beligerante. Y es que, como dijo nuestro compañero Germán Kortabarria en el título de su libro 'No pudimos ser amables', ahora tampoco nos podemos permitir ser amables y condescendientes.

La inversión pública en investigación, sobre todo de enfermedades raras, es totalmente insuficiente. Vivimos en un sistema neoliberal que busca beneficios a costa de deshumanizar la sociedad; una sociedad que ya padece la lacra de mirar hacia otro lado mientras no nos salpiquen los problemas. Y aun cuando creías estar totalmente concienciado, te das de bruces con la realidad y sufres en tu piel las deficiencias de un sistema de salud que dicen modélico pero que dista mucho de serlo. Te comunican que padeces una enfermedad degenerativa, y te dicen que es mortal; que es consecuencia de la falta de inversión de las diferentes instituciones. Porque ayuntamientos, diputaciones, gobiernos autonómicos, estatales y europeos opinan que una enfermedad que tan solo afecta a dos de cada 100.000 personas es aceptable por ese mal llamado estado del bienestar. Las y los enfermos de Esclerosis Lateral Catastrófica (la ELA mala) somos pocos y amortizables.

## Osasunak, unibertsala eta publikoa izateaz gain, lehentasuna behar du izan

Las personas que padecemos la ELA mala solo podemos esperar a que nuestra musculatura se vaya degenerando poco a poco, día tras día, sin otro remedio que escuchar el tictac del reloj que nos apunta a bocajarro, con el sufrimiento que ello acarrea a pacientes, familias y amigos. Y lo digo bien alto, esto es consecuencia de buscar, únicamente, rentabilidad económica y beneficios. ¿Puede haber algo más cruel que no invertir en investigación sanitaria por falta de rentabilidad?

**ERREDAKZIO TALDEA**

**Zuzendaria:** Iván Giménez.
**Koordinatzailea:** Ander Egiluz Beramendi.
**Idazlariak:** Ander Egiluz Beramendi, Davide Cabaleiro, Lander Zabaleta, Iñaki Zabaleta, Aitor Murgia, IratINK, Unai Martinez, Mikel Etxebarria, Pello Igeregi, Leire Gallego, Mirari Ullibarri, Ainhara Plazaola eta Haimar Kortabarria.
**Itzulpen lanak:** Bixen Fernández Amezaga.
**Argitarazlea:** ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

Eso es neoliberalismo puro y duro. Están apostando por un sistema que prioriza lo individual sobre lo colectivo y lo privado sobre lo público. La élite política no se pone de acuerdo ni para pactar ayudas a enfermos y familias, aun siendo personas que necesitaremos cuidados las 24 horas del día, los 365 días del año.

Políticos y gobiernos de aquí (Gasteiz e Iruñea), allí (Madrid) y allá (Bruselas) derivan recursos económicos dirigidos a la sanidad pública —profesionales, infraestructuras, investigación...— a sectores como armamento y proyectos como aeropuertos vacíos o trenes que la sociedad ni necesita ni demanda.

## Indibiduala kolektiboari gailentzen zaion sistema ezartzen ari dira

Ante esta realidad, es más necesaria que nunca la ELA buena, Eusko Langileen Alkartasuna. Nuestro sindicato lleva décadas denunciando que el sistema de salud se está deteriorando y que se debe invertir más. Y no solo en sanidad, también en el resto de áreas sociales, imprescindibles si queremos conseguir una sociedad más justa y preservar los derechos de las más y los más desfavorecidos. Llevamos defendiendo estos principios más de 111 años. No somos unos paracaidistas nuevos en este mundo.

## Egoera honetan dugu ELA sindikatua inoiz baino beharrezkoago

Por eso y por muchos motivos más revindico, en mi situación, el valor de la ELA buena. Nuestro sindicato es el único altavoz de las más desfavorecidas y desfavorecidos de la sociedad, una organización libre, independiente y con sentimiento abertzale que ofrece su dedicación, lealtad y compromiso a las y los afiliados. Personas trabajadoras junto a las que lucha contra cualquier tipo de precariedad, sea de la índole que sea.

Por eso y por mil motivos más, esta ELA, la ELA buena, es más necesaria que nunca. También para luchar contra la otra ELA, la ELA mala.

Qué paradoja, nuestras emblemáticas siglas en euskera son las mismas que las de esta terrible enfermedad. Pero como dice uno de nuestros viejos y, por desgracia, cada vez más vigentes lemas, el que no lucha por lo justo se tiene que conformar con lo que le dan. Y a luchar no nos gana nadie, porque el que lucha puede perder, pero el lo que no lo hace esta perdido.

PD: Esta enfermedad me matará, pero no me va a ganar. ■





# también e

> **Haimar Kortabarria**

La sentencia del Tribunal Supremo de 20/09/2022 reconoce como enfermedad profesional la lesión en el hombro (patología tendinosa crónica de manguito de los rotadores) sufrida por una limpiadora. Y lo hace a pesar de que en el listado de actividades que puedan dar origen a tal enfermedad profesional no esté incluida la de limpiadora, mientras sí se mencionan expresamente las actividades de pintores, escayolistas o montadores de estructuras.

Este reconocimiento no es jurídicamente novedoso, ya que hay precedentes de sentencias que reconocen a trabajadoras el carácter profesional de sus dolencias a pesar de que su trabajo no figurara en el listado de oficios asociados a la correspondiente enfermedad profesional; así ha sucedido con limpiadoras, peluqueras, gerocultoras o auxiliares domiciliarias. Recientemente, por ejemplo, el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha reconocido a una limpiadora afiliada de ELA el carácter profesional de su dolencia, diagnosticada como dedo en gatillo o resorte.

La norma de referencia es el Real Decreto 1299/2006, que aprueba el cuadro de enfermedades profesionales en el sistema de la Seguridad Social. Este cuadro recoge un listado de enfermedades profesionales junto

CONSULTORIO JURÍDICO

# Perspectiva de género, en salud laboral

con la relación de las principales actividades capaces de producirlas.

Para saber si nos encontramos ante una enfermedad profesional, habrá que analizar si se dan los tres requisitos exigidos por la norma: 1º) que la enfermedad se haya contraído a consecuencia del trabajo realizado por cuenta ajena; 2º) que se trate de alguna de las actividades determinadas en el listado mencionado; y 3º) que esté provocada por la acción de elementos y sustancias que se determinan para cada enfermedad.

Sin embargo, la doctrina del Tribunal Supremo viene puntualizando que el segundo de los requisitos (que enlaza enfermedades profesionales y actividades susceptible de causarlas) no es de carácter cerrado, sino indicativo, y admite su extensión a otros oficios diferentes. Se trata, por tanto, de una lista abierta que no excluye otras profesiones con análogos requerimientos. Lo novedoso en la Sentencia del Tribunal Supremo a la que hace referencia este comentario no es, pues, el reconocimiento del carácter profesional de una enfermedad producida como consecuencia de una actividad laboral no contemplada en el listado. La novedad es la aplicación al caso de un argumento añadido que refuerza las conclusiones alcanzadas por el tribunal. Y tal argumento es consecuencia del enjuiciamiento con perspectiva de género de la cuestión jurídica planteada.

Argumenta el tribunal que esta visión o perspectiva de género viene impuesta por la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres. Concretamente, sus artículos cuarto y decimoquinto exigen tanto la integración del principio de igualdad en la interpretación y aplicación de las normas como la transversalidad del principio de igualdad de trato.

La aplicación de esta normativa supone que el principio de integración de la dimensión de género vincula a todos los poderes del Estado: legislativo, ejecutivo y judicial. Y es ahí donde aparece la obligación de jueces y tribunales, como poder del Estado, de incorporar la perspectiva de género en el ejercicio de la potestad jurisdiccional.

Pues bien, todo ello ha llevado al Tribunal Supremo a concluir que la no inclusión en el Real Decreto de enfermedades profesionales de la profesión de limpiadora, cuando estas trabajadoras pueden resultar afectadas por la enfermedad profesional en cuestión, supone una discriminación indirecta por razón de género: "… mientras que las profesiones contempladas a título ejemplificativo -pintores escayolistas, montadores de estructuras- fuertemente masculinizadas, se benefician de la presunción de que en ellas se realizan posturas forzadas y movimientos repetitivos en el trabajo, se realizan con los codos en posición elevada o que tensan los tendones o bolsa subacromial, asociándose a acciones de levantar y alcanzar; uso continuado del brazo en abducción o flexión, lo que determina que estemos ante una enfermedad profesional; en la profesión de limpiadora, fuertemente feminizada, para el diagnóstico de la enfermedad profesional se exige acreditar la realización de dichos movimientos".

Como se ve, la lucha por la igualdad efectiva entre mujeres y hombres sigue siendo una carrera de obstáculos. En este caso, por suerte, el parcheo de los tribunales está corrigiendo el sesgo de género de una norma, que, no lo olvidemos, sigue vigente.

# “ENTZUTEA OINARRIZKOA DA”



> **Ander Egiluz Beramendi**

Lau hile bete berri ditu Ainhoa Tirapu de Goñik (Iruñea, 1984) ELAko liberatu gisa. 2022ko urriaren 3an hasi zen, “greba batekin, fuerte”, dio irriz. “Egungo egoerarekin normala da grebara joan izana”, gehitu du. Erresidentzietako langileekin egiten du lan, Bizkaiko Eskumaldean.

Athletic Clubeko kapitaina izan zenak, emakumezkoen eskubideen alde lan handia egin du kirol munduan.

Jokalariek lan hitzarmen berria lortu zutenean Espainiako ligan, bera izan zen bozeramailea. “Gogorra izan zen, asko luzatu zelako. Greba eta borroka ez dira batere errazak, energia asko kentzen dizute. Erresidentzietako langileek ere esaten zidaten hori, baina helburuak argi dituzunean indarra ateratzen duzu”.

## Bidea egiten eta irudiak aldatzen

“Oso feminizatuta dauden sektoreei garrantzia gutxiago ematen zaie. Sindikalgintza eta greba Metalaren inguruan mugitu izan dira beti, eta irudi hori aldatzea kostatzen da”, dio. Ordezkatzen dituen erresidentzietako langileek 368 greba egun egin zituzten, baina. “Beraiek badakite mobilizatzea zer den. Gustatuko litzaiguke babes handiagoa jasotzea, baina bidea egiten gaude. Oso emakume indartsuak dira”.

## “Laguntzea gustatzen zait, ez naiz sofan botata geratzekoa”

Hamar gehi bat saltsetan ibilitako emakumea izan zuen ama, politikan eta kirol munduan aritua, eta aitak ere “badu ELArekin historia”. Hala ere, atezain eskularruak eskegi eta gero ez zuen espero honetan aritzea. “Aukera desberdinak nituen, baina laguntzea gustatzen zait eta ez naiz sofan botata geratzekoa”, gehitu du irribarrez.

“Gogotsu nago ahal dudan guztia emateko langileei eta ELAri”, aitortu du. Badaki hasi berria dela eta ikasteko asko duela, baina ordezkari batek afiliatuei hurbiltasuna eskaini behar diela argi dauka, eta entzuteko prest egon behar duela: “Guk ez dakigu dena, horregatik da oinarrizkoa entzutea”.

PEFC

Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129